

“ZABALA ETXEA” GAZTE ATERPEA



Bertziko Jaurreriaren Natur Parkeak, bere ekipamenduen artean, gazte aterpe bat dauka. Hau **natura ingurunean ingurumen hezkuntzako jarduerak** egin nahi dituzten **taldeendako** dago prest, hala nahi izanez gero.

Aipatu jarduerak sekula ez dira lehiari ariko Parketik kanpo dauden bestelako alojamentuetan antolatutakoekin, Parkearen helburuetako bat bera dagoen eskualdearen garapen ekonomikoa sustatzea baita.

Parkeko zuzendaritzak bere egiten du Aterpea erabiltzeko eskubidea, naturgune honen helburuekin bateragarriak diren jarduerak egiteko.

“ZABALA ETXEA” GAZTE ATERPEA: EZAUGARRIAK

Kokapena eta sarbideak:

Aterpea Parkearen barnean dago, aparkalekutik 500 bat metrora. Autoz edo autobusez aparkalekuraino joaten ahal da, eta handik oinez Aterperaino iristen da.

Leku kopurua: Gehienez 35 pertsona.

Banaketa:

Beheko solairua: harreralekua, ingurumen eta hezkuntza jardueren aretoa, sukaldea eta jantokia, komunak eta egurtegia.

Lehenengo solairua: bi logela, haietako batek 12 leku eta besteak 6 leku dituztenak. Komunak.

Bigarren solairua: bi logela, haietako batek 12 leku eta besteak 5 leku dituztenak. Komunak.

Logeletan banakako oheak eta mantak daude, 35 erabiltzaileendako. Erabiltzaile bakoitzak maindireak eta lo-zakua ekarri behar ditu.

Etxearen ekipamendua hau da:

- Berokuntza eta sanitate-ur beroa.
- Tximinia jantoki-egongelan.
- Sukalde tresna eta ontziteria nahikoa bertan sartzen diren 35 pertsonendako.
- Botika-kutxa.
- Telefono publikoa.

Tresna jakin batzuen inguruko informazioa eskatu nahi izanez gero, eskabidean zehaztu beharko da.

ATERPEA NORK ETA NOIZ ERABILI

- Erabili nahi duten guztiek ingurumen hezkuntzako programa hartu edo aurkeztu beharko dute.

- Talde guztiek, gutxienez, 20 pertsonaz osatuta egon behar dute, Parkearen zuzendaritzak salbuespenik baimentzen ez duen artean.

Urrian eta azaroan; martxotik ekainera: Aterpea data hauetan erabiltzeko jasotzen diren eskabideak honako lehentasun-irizpide honi izanen dira lotuak:

LEHENTASUNA	TALDE MOTA
1	A: “Zabala Etxea” IHko (*) programarekin bat egiten duten taldeak (3-8 urte). Baztan-Bidasoa eskualdekoak
2	B: “Zabala Etxea” IHko (*) programarekin bat egiten duten taldeak (3-8 urte). Beste eskualde batzuetakoak
3	C₁: Parkearen bestelako IHko programekin bat egin eta IHko programa bat aurkezten duten taldeak. Baztan-Bidasoa eskualdekoak
4	C₂: Parkearen bestelako IHko programekin bat egin eta IHko programa bat aurkezten duten taldeak. Beste eskualde batzuetakoak
5	D: Ingurumen Hezkuntzako programa bat aurkezten duten beste talde batzuk

(*) IH = Ingurumen Hezkuntza

Urteko gainerako datetan: Aterpea data hauetan erabiltzeko jasotzen diren eskabideak honako lehentasun-irizpideari izanen dira lotuak:

LEHENTASUNA	TALDE MOTA
1	D₁: Ingurumen Hezkuntzako programa bat aurkezten duten taldeak. Baztan-Bidasoa eskualdekoak
2	D₂: Ingurumen Hezkuntzako programa bat aurkezten duten taldeak. Beste eskualde batzuetakoak

ESKABIDEAREN PROZEDURA ETA PREZIOAK

Eskabidea egiteko datak:

Urrian eta azaroan:

Martxotik ekainera:

TALDEA	DATAK	TALDEA	DATAK
A	Irailaren 1etik 15era	A	Otsailearen 1etik 15era
B	Irailaren 15etik 30era	B	Otsailaren 15etik 28/29ra
C (C₁, C₂)	Irailaren 15etik 30era	C (C₁, C₂)	Otsailaren 15etik 28/29ra

Urteko gainerako datetan:

TALDEA	DATAK
D (D₁, D₂)	Urte osoan

- Erreserba egiteko baldintzak:

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide eredu, behar bezala beteta, eta eskatzen den gainerakoa, posta elektronikoz, faxez edo ohiko postaz bidali behar dira natur parke honen jauregiko bulegoetara. Eskabide eredu hau eskuragarri duzu aipatutako jauregiko bulegoetan.

- “Zabala Etxea” programarekin bat egiten ez duten taldeek ingurumen hezkuntzako programa bat aurkeztu beharko dute, eskabide ereduari diren ezaugarrien arabera.

- Talde guztiek aldeaz aurretik eman beharko dute, Parkearen jauregiko bulegoetan, 100 euroko bermea, eskudirutan.

Jauregiko bulegoak:
Bertziko Jaurreriaren Natur Parkea-Jauregia.
(Zabala Etxea gazte aterpearen eskabidea)
31720 Oieregi, Bertizarana (Nafarroa)

Posta elektronikoa: gavrodbertiz@gavn.com

Telefonoa: 948 59 23 87 Faxa: 948 59 24 23

- Prezioak:

Parkearen zuzendaritzak eskabidea onartuta, hau ez da baieztatutaz jutzen harik eta eskatzaileak dagokion prezioa ordaindu arte.

Hauek dira prezioak:

	Prezioa eguna / taldea
Astelehenetik ostiralera	110 €
Larunbata edo igandea	190 €
Asteburua (ostiraletik igandera)	375 €
Tximiniarako paketea (egurra+ezpalak+pastillak)	5 € / unitatea

Prezio hauen barnean gaua emateko instalazioen eta etxeko zerbitzuen erabilera dago. Hau instalazioak erabiltzean sortzen diren mantentze-gastuen ordainsari hutsa besterik ez da.

ATERPEA ERABILTZEKO ARAUAK

Aterpea erabiltzen duten guztiek bere egiten dute hurrengo arauak betetzeko ardura: Eskabidean taldearen arduradunaren datuak zehaztu beharko dira.

- Uneoro errespetatu beharko dira Parkeko ekipamenduen eta jardueren ordutegiak, hauek iristen zaretenean emanen zaizkizue, hala nola eskabidean sartu diren instalazioetara iristeko ordua eta handik ateratzeko. Aterpea erabilgarri dago iristen den egunaren 10:00etatik, ateratzen den egunaren 17:00etara (negua) edo 19:00etara (uda) arte.

Ibilgailuak:

- Parkea erabili eta kudeatzeko plan zuzentzailearekin bat, parkean

motordun ibilgailuen erabilera mugatua da. Debekaturik dago Parkearen barnean ibilgailuak erabiltzea.

- Bakar-bakarrik ibilgailu bat egotea baimenduko da, aterpearen inguruan, eta baso pistan egon beharko du aparkatuta beti, beste ibilgailuen igarotzea tratatu gabe. Ibilgailu hau larrialdian besterik ez da erabiliko.

Garbiketa:

- Etxea eta ingurua garbi mantendu behar dira egonaldian eta honen bukaeran. Zaborra edukiontzietan utzi behar da.

- Taldeak eman behar ditu egonaldian egin beharreko garbiketarako produktuak, hala nola komuneko papera eta zabor-poltsak.

- Tximinia erabiltzen bada, hau garbi gelditu behar da eta txingarrak guztiz itzalita egonaldiko gauetan eta aterpetik joatean.

- Erabat galarazita dago basoko enborrak edo bestelakorik hartzea tximinian erregai erabiltzeko. Horretarako Parkean berean horretarako propio eskaintzen den materiala hartu behar da.

- Taldearen arduraduna berogailua pizteaz eta itzaltzeaz arduratuko da, Ingurumen Praktika Egokiekin bat.

- Egonaldia bukatuta Parkeko langileen batek, taldearen ardurarekin batera, Aterpea eta ingurua aztertuko dute. Honen ondoren, arazorik ezean, bermea itzuli egiten da.

- Abenduaren 26ko 28/2005 Legearekin bat, debekatuta dago erretzea instalazio osoan.

- Parkearen Zuzendaritzak bere egiten du harrera eskubidea hala nola egonaldia bertan behera uztekoa, taldearen erabilera ezegokia irudituz gero.

- Nafarroako Gobernua eta, bere izenean, Parkearen zuzendaritza, ez da erantzule izanen egonaldian gerta litezkeen istripu edo larrialdiengatik, taldea bere arduradunaren erabateko erantzukizunpean egonik.

EBALUAZIOA

Egonaldia bukatuta, taldeak hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- Aurkeztutako programaren arabera egindako jarduera bakoitzaren balorazioa eta ebaluazioa.

- Iritsitakoan banatuko den ekipamenduak ebaluatzeko galdetegia.

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK



Bertizko Jaurerriaren Natur Parkeak, gainera, honako ekipamendu eta zerbitzu hauek ditu:

- Aparkalekua
- Harrera eta informazio zentroa eta sarrerak saltzeko etxola
- Haur-jolasen eremua
- Askaldegia estalia eta barbakoia
- Lorategi historiko artistikoa eta lorategi botanikoa
- Baso-mintegia
- Naturaren Interpretazio Zentroa
- Ikaztobia, karobia eta basoan barnako ibilbide markatuak
- Erakusketa aretoa

Parkearen araudia uneoro errespetatu behar da.



NOLA IRITSI?

Bertizko Jaurerriaren Natur Parkea, Oieregiko barrutian, ongi komunikaturik dago N-121 errepidearen bidez. Iruñetik 45 km.ra dago eta Irundik 28 km.ra. Sarbidea Oronoz-Mugairi herritik egin beharra dago, Bidasoa errekararen gaineko zubia pasatuta.



ORDUTEGI OROKORRA

Hona hemen harrera pertsonaltzatua orduetegi Parquean: udan, 10etatik 20etara eta, neguan, 10etatik 18etara. Egunero, abenduaren 24an eta 31n izan ezik (10etatik 14etara). Urtarrilaren 1 ean eta abenduaren 25ean itxita dago.

 **Nafarroako Gobernua**
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua



Bertizko Jaureria Natur Parkea
31720 Oieregui (Nafarroa) Tel.: 948 59 24 21 - Fax: 948 59 24 22
cinberti@cfnavarra.es
www.parquedebertiz.es

 **Nafarroako Gobernua**



**ZABALA ETXEA
GAZTE ATERPEA**